



## **1. Eskolarteko Boulder Ligaxka'19 - GIPUZKOA**

### **EGITARAUA ETA PARTE-HARTZE OINARRIAK**

**1- Eguna eta lekua:** Urtarrilaren 27a, Ibarra Kiroldegia, Aretxabaleta.

**2- Partaideak eta mailak:** Gipuzkoako ikastetxeetako neska-mutilek har dezakete parte. Mailak: alebinak (2007-2008 jaiotakoak), infantilak (2005-2006 jaiotakoak) eta kadeteak (2003-2004 jaiotakoak).

**3- Izen-ematea:** Probaren egun berean, prezioa 3 € partaideko izango da.

**4- Ordutegia:**

- Eskalada: 9:30-13:30
- Diplomak: 13:30-14:30

**5- Helburua:** Errespetu eta adiskidetasun balioetan oinarrituta, norberaren trebetasunak partaideekin neurtzeko aukera izango dute.

**6- Proba sistema:**

- Zirkuito itxi bat egongo da.
- Zirkuituaren helburua hurrek bloke guztiak probatzea da (25-30 bloke) zailtasun gutxiagotik gehiagora. Start-a eta Boulderra pegatinekin egongo da seinalizatuta.
- Haur bakoitzak fitxa bat izango du lorpenak apuntatzen joateko, X bat lortzen ez diren saiakerengatik eta T bat egindako saiakerengatik.
- Maila bakoitzean sailkapen misto bakarra egongo da, hau da, sexu bereizketarik gabe (Ikusi "Sailkapen mistoa. Inkesta" eranskina).
- Maila bakoitzean sailkatutako aurrenengo hirurak diploma egiaztatu bat jasoko dute.

**7- Opariak:** Partaide bakoitzak Izadi Kirolak eta Charkoren kamiseta bat jasoko du.

**8- Lehen sorospenak:** Sorospen zerbitzua DYaren ardurapean izango da.

**9- Joan-etorria:** Automobil partikularrak erabiltzeak, arazo desberdinak sor ditzake: segurtasuneko, trafikozkoa, aparkalekukoa, CO<sup>2</sup> igorpenak, etab. **Garraio kolektiboa erabili. TALDEAN GOAZ!**

**10- Ezustekoak:** Ezustekoren bat gertatuz gero, antolatzaileen esku egongo da zer egin erabakitzea.

**11- Partaideen irudiak:** Jarduera publikoa izanik, bai prentsan eta bai Federazioaren edo elkarte antolatzailearen webguneetan argitaratzeko bideo eta argazkiak aterako dira. Hala ere, umeen arduradunak argazkiak ez publikatzea eskatu dezake, bertan edo [gmf-administrazioa@kirolak.net](mailto:gmf-administrazioa@kirolak.net) helbidean.

**12- Aforoa:** Rokodromoko gehienezko aforoa 100 partaide da. Beraz, izen-ematen duten partaide kopuruak aforoa gaindituko balitz, 2 txanda desberdinetan banatuko dira partaideak, 9:30ean lehenengoa eta 11:30ean bigarrena izanik.

**13- Oharra:** Izen-emate libreak antolaketako baldintzak onartzea dakar.



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

*Eskola Mendi \* Montañismo Escolar*



**Boulder Probak '19 – GIPUZKOA**

## ERANSKINA

### SAILKAPEN MISTOAK - INKESTA

#### **AURKEZPENA**

Gipuzkoako Eskolarteko 1. Boulder Proban (2018ko ekainak 3, Tolosa) antolatu genuen probaren sistemaren arabera, partaide guztiak espazio fisiko bera partekatuko zuten eta aukera izan zuten bloke guztiak frogatzeko sexu eta kategoria bereizketarik gabe. Honela, mutilen eta nesken berdintasuna eta parekotasuna sustatu zen.

Kiroltasunez hitz eginez, adin goiztiarretan desberdintasun fisiko gutxi dago sexuen artean. Ikasleak hazten ari izan ahala, desberdintasunak nabarmentzen dira. Mutilengako indar muskular handiagoa eta nesken gako flesibilitate handiagoa. Eskaladan bi ezaugarriak eraginkor eta osagarriak dira.

Gipuzkoako Eskolarteko 1. Boulder Proba honetan alebinak, infantilak eta kadeteak lehiatu ziren. Bakoitzean neskak eta mutilak banatutako sailkapenak eginez.

Mutilen eta nesken arteko parekotasuna hobetzeko sailkapen mistoak egin ahal izatea interesgarria izango litzateke. Uste dugu egin litekeela 2019an antolatuko dugun Gipuzkoako Eskolarteko Boulder bi probetan.

Gogoeta hau gurasoekin, tutoreekin, irakasleekin eta entrenatzaileekin partekatu ahal izateko, galdeketa bat eman zen beraien iritzia horri buruz jasotzeko.

Ondoren, jasotako inkesten emaitzak aurkezten ditugu eta dagokion balorazioa.

#### **JASOTAKO INKESTAK**

11 inkesta jaso dira guztira:

- Gurasoak.....5
- Entrenatzaileak.....1
- Besteak.....5

#### **Jasotako inkesten emaitzak**

Emaitzak hurrengoak izan dira:

- **Alebinetako probetan sailkapen mistoa:**

- ✓ %73 Sailkapen mistoaren alde.
- ✓ %27 Berdin zaie.



# GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

*Eskola Mendi \* Montañismo Escolar*



- **Infantiletako probetan sailkapen mistoa:**
  - ✓ %60 Sailkapen mistoaren alde.
  - ✓ %10 Aurka.
  - ✓ %30 Berdin zaie.
- **Kadetetako probetan sailkapen mistoa:**
  - ✓ %60 Sailkapen mistoaren alde.
  - ✓ %40 Berdin zaie.
- **Sailkapen mistoaren 3 kategorien emaitza orokorra:**
  - ✓ %65 Sailkapen mistoaren alde.
  - ✓ %3 Aurka.
  - ✓ %35 Berdin zaie.

## BALORAZIOA

Emaitzetan argi nabarmentzen da gehiengoek sailkapen mistoaren alde daudela maila guztietan.

Kontziente gara erantzundako inkesten bolumena baxua dela, baina, partaidetza baita ere baxua izan zen (24 part.). Horretarako, proba gisa sailkapen mistoa egingo dugu Gipuzkoako Eskolarteko Boulder Ligaxka '19ko bi probetan.

Parte-hartze handiagoa espero dugu, iritzien bolumena handiagoa izango da, non berriro galdetuko dugu beraien iritzia sailkapen mistoari buruz ezarritako sistema berrian. Ez gaude itxita etorkizuneko balioespenetara eta irits daitezkeen iradokizun guztiak kontuan hartuko ditugu.

**Donostia, 2018ko azaroaren 30a**